



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Expte. 09-3988

KUDEAKETA, BILKETA ETA IKUSKARITZAKO UDAL ORDENANTZA

2010

I.- PRINTZIPIO OROKORRAK

1. artikulua.- Ordenantzaren helburua

Ordenantza honen helburua da Amorebieta-Etxanoko Udalari dagozkion zuzenbide publikoko zerga eta diru-sarrerekin zerikusia duten kudeaketa, diru-bilketa, zehapena eta ikuskaritzako prozedurak arautzea.

2. artikulua.- Lege araubidea

Zuzenbide publikoko zergen eta gainerako diru-sarreraren kudeaketa, diru-bilketa, zehapena eta ikuskaritza arautuko ditu Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak, Toki-ogasunen Foru Arauan eta zerga bakoitzaren Ordenantza Fiskaletan aurreikusitako espezialitateekin, eta Udal Ordenantza honek. Bertan aurreikusita ez dagoenetan, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren garapenean emandako legezko xedapenak aplikatuko dira osagarri bezala.

3. artikulua.- Aplikazio-eremua

1. Udal honek bere eskumenak beteko ditu, Ordenantza honek araututako gaiei dagokienean, Amorebieta-Etxanoko udalerrri osoan.

2. Udalerritik kanpo egin behar diren baina berari dagozkion Zuzenbide Publikoko diru-sarrerekin zerikusia duten jarduketak, ikuskaritza edo nahitaezko diru-bilketa arloan, Udal honek burutu ahal izango ditu Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremu barruan. Gainerako ustezko kasuetan, ezarrita dauden edo ezar daitezkeen lankidetzak formulen arabera egingo dira.

4. artikulua.- Organo diru-biltzailea

1. Agindu hauek betearazteaz arduratuko dira Alkatetza eta Diruzaintza, bakoitzaren funtzioak ondokoak izango direlarik:

1. Alkatearen funtzioak zuzenbide publikoko sarreraren kudeaketan hauek dira:
 - Erakunde laguntzaile bezala baimena ematea.
 - Informazioa eskatzea, finketan edo lokaletan sartzeko baimena, kautelazko neurriak hartzea.
 - Espezetan ordaintzea.
 - Kitapenak onetsi eta ezeztatzea.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

- Berraztertze errekurtsioen gaineko erabakia hartzea.
- Onura fiskalak aitortzeko eskabidea ebatzea.
- Okerreko ordainagiriak itzultzearen gaineko erabakia.
- Bermeak onartzearen gaineko erabakia.
- Bermeen exekuzioari buruz ebatzea.
- Onura fiskalak aitortzea.
- Gerorapenari edo zatikapenari buruz ebatzea.
- Beste organoei legalki egotzi ez zaizkien eginkizun guztiak betetzea.

Alkateak egoki irizten dion funtzio guztiak eskuordetu diezazkieke zinegotziei.

2. Diruzaintzaren funtzioak zuzenbide publikoko sarrereren kudeaketan hauek dira:
 - Konpentsazioa ebatzea interesdunak eskatuta.
 - Hutseginak eta kreditu kobraezinak aitortzea.
 - Premiamendu probidentzia ematea.
 - Enbargo probidentzia ematea.
 - Enbargoak gordailatzeko lekua erabakitzea.
 - Enbargatutako ondasunen gordailuzaina.
 - Enbargatutako ondasunak besterentzeari buruz ebatzea.
 - Dirutan ordaintzea.
 - Ordenantza honen 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, geroratu edo zatitzeari buruz ebatzea.
 - Ofizioz konpentsazioa ebatzea.

5. artikulua.- Kudeaketa

1. Amorebieta-Etxanoko Udalak onura fiskalak eman ditzake bere zergen arloetan, aurrekontuetan bere gain hartuz, dagozkion Foru Arauetan xedatutakoaren arabera. Udal tributua arautzen dituzten zerga ordenantzetan adierazitako hobari bat baino gehiago aplikatzeko eskatuz gero, hauek ezingo dira aldi berean aplikatu, ezpada zergadunarentzat onuragarriena den hobaria bakarrik aplikatuko da.

2. Amorebieta-Etxanoko Udalak, zerga-bilketaren kudeaketarako eraginkortasun eta ekonomia irizpideengatik, 6,00 €-ko kuota likidoa baino gutxiagoko ordain-agiri eta likidazioak salbuestea ezarri du.

6. artikulua.- Errolda

1. Zerga-egitateak jarraipena duenean errolda egin behar izango da, interesdunen aitortpenak, Udal honek dituen datuak eta ikuskapenak kontuan izanda. Altak, bajak edo aldaketak, sortarazi dituen egitatea izan den ondoko 15 egun balioduneko epean jakinarazi beharko dira.

2. Alkatetzak onespena eman beharko die erroldei ekitaldi bakoitzean eta jendaurrean jarriko dira ikusgai 15 eguneko epean, ukitutako zergadunek aztertu eta, hala behar denean, bidezko



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

erreklamazioak egin ditzaten. Guzti hau dagokien Foru Arau eta zuzenbide publikoko sarrerak arautzen dituen berariazko ordenantzetan aurreikusitakoaren kaltetan gabe.

3. Udalak, Ordenantza honetako xedapen gehigarrian ezarritako epean ordaintzeko epea zabalduko du. Epe hori iraganda, osorik ordaindu ez balitz, epealdi betearazlea hasiko da.

4. Kobrantzako iragarkia iragarki-oholtzan eta web orrian jarriko da eta ondokoa izan behar du:

- a) Diru-sarrera egin behar den epea.
- b) Baimena duten kobratzeko mota desberdinak.
- c) Diru-sarrera egiteko leku eta ordua
- d) Diru-sarrera egiteko epea iraganda, burutu gabe balego, zorrak premiamenduko prozeduraz eskatuko dira eta epealdi betearazleko gainordainak, berandutza interesak eta, behar denean, kostuak sortuko dituzte.
- e) Helbideratutako ordainagiriak kobratuko diren data.
- f) Kobratzeko epealdi horretan banku-helbideraketek ondorioak izateko azken muga-eguna.

7. artikulua.- Diru-sarrera egiteko borondatezko epealdia

1. Izaera publikoko aldirakako diru-sarrerak kobratzeko borondatezko epealdia, ez da hilabete baino laburrago izango.

2. Foru Aldundiak eskuordetua du Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga kobratzeko kudeaketa. Nolanahi ere, Foru Aldundiak berak aurreikusitako epea izango dute.

II.- ZORRAREN IRAUNGIPENA

ORDAINKETA

8. artikulua.- Ordainketa egiteko legitimazioa

Ordainketa edozein obligaziodunek baita hirugarrenek ere egin dezakete, zorra iraungiteko ondorio guztiekin. Hala ere, horrek ez die hirugarren horiei Udalaren aurrean inongo eskubiderik egikartzeko ahalmenik ematen.

9. artikulua.- Ordaintzeko lekua eta bideak

1. Autokitapenak:

Udalaren banku-erakunde laguntzaileetan egin ahal izango da ordainketa, baita Udalean bertan ere banku txartelaren bidez edota ondoko web orriaren bidez: www.amorebieta-etxano.net/mipago



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

2. Aldizkako mugaeguna duten errezipuak eta jakinarazpen kolektiboa:

a) Borondatezko ordainketan, dagokion banketxean ordainduz, helbideratzeko agindua dutenentzat, edo Erakunde laguntzaileen bulegoetan errezipua aurkeztuz, Udalean bertan banku txartelaren bidez eta ondoko web orriaren bidez:

www.amorebieta-etxano.net/mipago

b) Betearazpen epean, erakunde laguntzaileetan, Betearazpen bidezko Zergabilketa Bulegokoak igorritako jakinarazpena aurkeztuz, ondoko web orriaren bidez: **www.amorebieta-etxano.net** edota jakinarazpen horretan adierazitako zergabilketarako kontu murriztura transferentzia bat eginez.

3. Zergen, prezio publikoen, hirigintzako baliabideen ebazpenen, zehapenen eta udal zuzenbide publikoko beste diru-sarrereren kitapenak:

a) Borondatezko ordainketan, dagokion banketxean ordainduz, helbideratzeko agindua dutenentzat, edo Erakunde laguntzaileen bulegoetan errezipua aurkeztuz, Udaletxean bertan banku txartelaren bidez edota **www.amorebieta-etxano.net/mipago** web orriaren bidez.

b) Betearazpen epean, erakunde laguntzaileetan, Betearazpen bidezko Zergabilketa Bulegokoak igorritako jakinarazpena aurkeztuz edota jakinarazpen horretan adierazitako zergabilketarako kontu murriztura transferentzia bat eginez edota **www.amorebieta-etxano.net/mipago** web orriaren bidez.

4. Salbuespenez, Udalak borondatezko epean edota betearazpen epean espezetan ordaintzea onar dezake, edozein ondasun edo eskubide emanaz, Bizkaiko Lurralde Historikoko Diru-bilketa Erregelamenduaren 17. art.ak xedatzen duen bezala.

5. Zor bat ordaintzen duenak, egindako ordainketaren egiaztatzea jasotzeko eskubidea izango du.

10. artikulua.- Helbideraketak

Subjektu pasiboek zergak, prezio publikoak eta kontratuko betebeharrak edozein Erakunde Finantziarioan helbidera ditzakete ordaintzeko eta ondokoa izango dute kontuan:

1. Aurretik Udal Administrazioari eskatu behar zaio, dagokion “helbideratze-buletina” betez.
2. Aldizkako mugaeguna eta jakinarazpen kolektiboko zergak, bat, batzuk edo denak helbidera daitezke.
3. Errezipuak kontuan zordunduko dira iragarkian edo kitapenean ezartzen den egunean.
4. Errezipuak itzuliko balira eta borondatezko epealdi barruan ordaindu ezean, diru-bilketa betearazleari hasiera emango zaio.
5. Ordaintzeko helbideraketek baliozkotasuna izango dute denbora mugagabeen. Baina zergadunek edozein momentutan, espreski, ezeztu edo beste



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

establezimendu batzutara lekualda ditzakete, Udal Administrazioari baliozko epe barruan jakinaraziz.

6. Udalak helbideratzea ezereza dezake, errezibuak itzuliz gero edo helbideraketako kontuan saldirik egon ezean.
7. Udalak ezarriko du helbideratze eskabideak onartzeko azken eguna edo horiek ondareak izango dituzten lehenengo eguna.
8. Aparteko gorabeherarik izanez gero, Alkateak helbideratutako errezibuentzako borondatezko epaldian ordaintzeko epea luza dezake.

11. artikulua.- Ordaintzeko epeak borondatezko epaldian

Borondatezko epaldian zorrak ordaintzeko epea ondokoa izango da:

1. Autokitapenentzat: Zerga bakoitzaren arauetan ezarritakoa.
2. Aldizkako mugaegunak eta jakinarazpen kolektiboko zergen errezibuek, errolda bakoitzarentzat onetsitako epea Ordenantza honetako Xedapen Gehigarrian adieraziko da.

3.- Zerga, prezio publiko, hirigintzako errekurtsoen ebazpenak, zehapenak eta udal zuzenbide publikoko diru-sarreraren kitapenentzat:

- a) Hilabete bakoitzaren 1etik eta 15era bitartean jakinarazitakoak, hurrengo hilabetearen 15era arte. Azken egun hau balioduna ez bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da epea.
 - b) Hilabete bakoitzaren 16tik azken egunera bitartean jakinarazitakoak, hurrengo hilabetearen azken egunera arte. Azken egun hau balioduna ez bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da epea.
- Epearen azken eguna larunbata edo jaieguna balitz, muga-eguna hurrengo egun baliodunera arte aldatu dela ulertuko da.

GERORAPENA ETA ZATIKAPENA

12. artikulua.- Gerorapena eta zatikapena

1. Obligaziodunak aurretik eskabidea egin ondoren, Alkateak edo Diruzainak zorrak ordaintzea geroratu edo zatika ditzake, diskrezionalki begiratutako egoera ekonomiko-finantzarioak, aldi baterako ordaintzea galerazten duenean.
2. Eskabideak Bizkaiko Lurralde Historikoaren Diru-bilketako Arautegi Orokorrean ezarritako edukia izango du.
3. Gerorapena edo zatikapena bai borondatezko epaldian bai epaldi betearazlean emakidatu ahal izango dira.
4. Gerorapenek eta Zatikapenek, bai borondatezko epaldian bai betearazlean, ondoko irizpide orokorrak izango dituzte:

Zatikapenak eta gerorapenak

- | | |
|---------------------------------|---------------------------------------|
| - 600,00 € tik 3.000,00 € ra: | 6 hilabeteraino (Diruzainak erabaki) |
| - 3.001,00 € tik 6.000,00 € ra: | 12 hilabeteraino (Diruzainak erabaki) |



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

- 6.001,00 € tik 12.000,00 € ra: 18 hilabeteraino (Alkateak erabaki)
- 12.001,00 € tik aurrera: 24 hilabeteraino (Alkateak erabaki)

5. Ez da gerorapenik ezta zatikapenik emango 600,00 € baino gutxiagoko oinarrizko zorra dutenei, ezta 24 hilabete baino epe luzeagorik. Hala eta guztiz ere, salbuespen kasuetan eta Gizarte Laguntza Zerbitzuak edo Udal Administrazioak, aurretiaz, behar bezala arrazoitutako inguruabarrak biltzen dituen txostena egiten badute, aipatutako zenbatekoa baino gutxiagoko zorrak atzeratu edo zatitu ahal izango dira Alkateak hala erabakitzen badu.
6. Ez da zatikapenik edo gerorapenik izapidetuko, zordunak betearazpen epean dituen zor guztiengatik ez bada eta betiere, salbuespenik gabe, geroratuta edota zatikatuta ez badaude.
7. Orokorrean, zordunari ez zaio esijituko zorrak geroratu edo zatikatzeko bermeak ematea, ordaintzeke dagoen zenbateko osoa 6.000,00 € tik gorakoa ez denean.
8. Geroratu edo zatikatutako ordainketa-kopuruek, behar denean, gainordain betearazlea kanpoan utzita, berandutzako interesa sortaraziko dute, hurrenez hurren, zerga-zorrak edo zergaz bestekoak direnaren arabera. Hala adierazita dago Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 26.3 artikuluetan eta indarrean dauden Xedapenen Testu Bateratutako 19. artikuluan.
9. Geroratzea edo zatikatzea ukatzen denean, borondatezko epaldian dirua sartzeko epea amaitzen denetik ebazpen ukatzailearen edo ordaindu den egunera arte, iragandako epaldiari dagokion berandutzako interesak kitatuko dira.
10. Geroratutako diru-kopurua sartu ezean, ordaintzeke dagoen zor osoa betearazte-bidetik esijitzea ekarriko du.

13. artikulua.- Berandutzako interesa

1. Berandutzako interesa obligaziodunei eta subjektu arau-hausleei esijituko zaie ondoko arrazoiengatik:

- a. Epe barruan ez ordaintzea .
- b. Diru-itzulketa bidegabe kobratzea.
- c. Zorren ordainketa geroratu edo zatikatzea.
- d. Zerga-araudian eta indarrean dauden aurrekontuko xedapenetan aurreikusitako gainerako kasuak.

2. Berandutza interesa, diruari buruz legeak agintzen duena izango da, eskagarria den epealdian zehar, %25a gehituta, bestelakorik ezarri ezean. Zergaz bestekoak diren zorrei diruaren legezko interes-tasa ezarri beharko zaie.

HUTSEGINAK ETA KREDITU KOBRAEZINAK

14. artikulua. Kartara ordaintzea

Udalak kudeatutako aldizkako epemuga duten ondoko tributuen ordainketa epeetan zatikatu ahal izango da, interesik sortu gabe.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

- Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga
- Ur hornidura, saneamendua eta zabor bilketa tasa
- Herri jabariaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziarengatiko tasa:
 - o Espaloietatik ibilgailuak sartzea eta aparkaleku eskusiborako bide publikoa erresebatzea, ibilgailuak gelditzea, edozein motatako merkantziak zamatuta eta deszamatzea.
 - o Erabilera publikoko lursailak mahaiekin, aulkiekin eta antzekoekin okupatzea, irabazasmoarekin.
 - o Kioskoak bide publikoan
 - o Asteroko azoka txikiak
 - o Salmenta automatikoko aparailuak eta antzekoak bide publikoetan edo jabari publikoko bestelako lursailetan ezartzen direnean edota haien gainetik doazenean.
- Boroako kamioien aparkalekuaren prezio publikoa

Motak:

Hiruhilabetero martxoak 16, ekainak 15, irailak 15 eta azaroak 25.

Seihilabetero maiatzak 15 eta azaroak 16

Baldintzak:

Banku helbideraketa

Ordainketak egunean izatea

Sistema hau erabiltzen hasi nahi duen urtearen hasieran, urtarrilean, eskaria egitea.

Zenbatekoak:

Aurreko urtean ordaindutakoak kontuan izanda, aipatu tributuetan ordaintzea dagokiona kalkulatu da, azken errezibua kitatu ondoren zenbatekoa doitzuz.

Ordainketa aurreratua:

edozein momentutan une horretara arte dagoen zorra ordain daiteke, zergadunak hala nahita, une horretatik aurrera sistema etenez.

15. artikulua.- Hutseginak

Hutseginak dira, zorra ordaindu ezin duten obligaziodunak, frogatutako kaudimengabeak izateagatik.

16. artikulua.- Kreditu kobraezinak

1. Zordun nagusia eta arduradun solidario eta subsidiario guztiak, hutseginak jo ondoren, kreditua kobraezintzat joko da.

Prozeduraren legaltasunari zor zaion errespetua eta administrazioaren eraginkortasuna uztartzeko helburuarekin, kreditu kobraezinak proposatu aurretik, egiaztatu beharko diren baldintzak eta eskakizunak ezartzen dira.

Ziurtagiriak desberdinak izango dira zorraren zenbatekoaren eta ezaugarrien arabera, ondoko ustezkoak bereiziz:



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

a. 150,00 € baino gutxiagoko zorrari buruzko espedienteak:

- Aurretiaz premiamenduko probidentzia jakinaraztea, zordunarekin nola edo hala loturik dauden helbide guztietara eramanez eta iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuz.
- Erakunde finantzarioetan fondoan enbargo saialdia, emaitza negatiboz.

b. 150,00 € eta 300,00 € bitarteko zorragatiko espedienteak:

- Aurretiaz premiamenduko probidentzia jakinaraztea, zordunarekin nola edo hala loturik dauden helbide guztietara eramanez eta iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuz.
- Erakunde finantzarioetan fondoan enbargo saialdia, emaitza negatiboz.
- Soldaten eta pentsioen enbargo saialdia, emaitza negatiboz.

c. 300,00 € eta 3.000,00 € bitarteko zorragatiko espedienteak:

- Aurretiaz premiamenduko probidentzia jakinaraztea, zordunarekin nola edo hala loturik dauden helbide guztietara eramanez eta iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuz.
- Erakunde finantzarioetan fondoan enbargo saialdia, emaitza negatiboz.
- Soldaten eta pentsioen enbargo saialdia, emaitza negatiboz.
- Bizkaiko Foru Aldundian egindako sarrera itzulketen enbargo saialdia, emaitza negatiboz.
- Jabetza Erregistroetan edota bestelako erregistro publikoetan zordunaren izenean inskribatutako ondasunak ez dagoela egiaztatzea.

d. 3.000,00 € baino gehiagoko zorrari buruzko espedienteak:

- Aurretiaz premiamenduko probidentzia jakinaraztea, zordunarekin nola edo hala loturik dauden helbide guztietara eramanez eta iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuz.
- Erakunde finantzarioetan fondoan enbargo saialdia, emaitza negatiboz.
- Soldaten eta pentsioen enbargo saialdia, emaitza negatiboz.
- Bizkaiko Foru Aldundian egindako sarrera itzulketen enbargo saialdia, emaitza negatiboz.
- Jabetza Erregistroetan edota bestelako erregistro publikoetan zordunaren izenean inskribatutako ondasunak ez dagoela egiaztatzea.
- Kobratzeko modurik gabe, zorra betearazpenean lau urtez izan dela jasotzen duen txostena.

PRESKIPZIOA ETA IRAUNGIPENA

17. artikulua.- Printzipio orokorrak

1. Udal honek zerga-zorra zehazteko ahalak preskripzioa eta iraungipena du.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Preskripzioa eta iraungipena aldi berean doaz. Horregatik, euretako edozein gertatuz gero, ezin izango da administrazio-ahala egikaritu, dagokion kitapenaren bidez zerga-zorra zehazteko.

2. Kitatu eta autokitatutako zorrak ordaintzea exijitzeko Administrazioak duen ahalak, eta zuzenbide publikoko diru-sarrerak, diru-sarrera bidegabeak itzultzea eta bermeen kostuaren errenboltoa arautzen dituen arauditik eratorritako diru-itzulketak lortzeak, preskripzioa dute.

3. Preskripzioak eta iraungipenak zorra kentzen dute eta ofizioz aplikatzen dira, baita ordaindu den kasuetan ere.

18. artikulua.- Preskripzioa

1. Aurreko artikuluko bat eta bi puntuetan aurreikusitako administrazio ahalak egikaritzea lau urtera preskribatzen du. Zuzenbide publikoko beste sarrera batzuetarako, dagokion araudia beteko da.

2. Preskripzioa zenbatu, eten eta gainerako ondorioetarako, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta berori garatzeko xedapenetan aurreikusitakoa ezarriko da.

19. artikulua.- Iraungipena

1. Ordenantza honen 16. artikuluko lehenengo puntuan aurreikusitako administrazio-ahalmenaren egikaritzak sei urteren buruan iraungitzen du.

2. Iraungipena zenbatu, eten eta gainerako ondorioetarako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta berori garatzeko xedapenetan aurreikusitakoa ezarriko da.

III.- PREMIAMENDUKO PROZEDURA

20. artikulua.- Premiamenduko prozedura

1. Zuzenbide publikoko zerga-zorrak edo gainerako diru-sarrerak borondatezko epaldian ordaintzeko epea iraganda, oso osorik ordainduta ez baleude, ordaintzeke dauden zorren epealdi betearazlea hasiko da.

2. Epealdi betearazlea hasiz gero, %5eko gainordaina eta berandutzako interesak zehaztea ekarriko luke, salbuetsita premiamenduko probidentzia diktatu denetik eta zorra ordaintzeko ematen den epea amaitu artean iragandako epaldian.

3. Ordaintzeko epea iragan ondoren, %20ko premiamenduko gainordaina, hala nola borondatezko epaldia amaitzen denetik sortarazitako kuotaren gaineko interesak esijituko dira.

4. Zergak premiamendu-prozeduraren bidez kobratzeko epea hauxe da:



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

a) Hilabetearen 1etik 15era bitartean jakinarazitakoak, hurrengo hilabetearen 15era arte; egun hori baliogabea bada, hurrengo egun baliodunera arte.

b) Hilabete 16tik azken egunera bitartean jakinarazitakoak, eta egun hori baliogabea bada, hurrengo egun baliodunera arte.

IV.- BERRIKUSTEA ADMINISTRAZIO BIDETIK

21. artikulua.- Berraztertze errekurtsua

1. Zuzenbide publikoko tokiko zergak eta gainerako diru-sarrerak aplikatu eta eraginkortasuna izateko egintzen aurkako berraztertze-errekurtsua aurkeztu arren, horrek ez du inpugnatutako egintza eta dagokziona legezko ondorioak egikaritzea eteten, kuoten diru-bilketa edo kitatutako eskubideak, interesak, gainordainak eta zehapenak barne. Zerga-zehapenak ezartzeko egintzak etengo dira errekurtsua aurkezten den unean.

2. Hala ere, berraztertze-errekurtsua denbora eta eran aurkeztu bada, automatikoki eta bermeak aurkeztu beharrik gabe etengo da inpugnatutako egintza egikaritzea, zerga-zorra borondatezko epealdian dagoenean edo premiamenduko probidentziaren aurkako berraztertze-errekurtsua aurkeztu bada. Era berean, egikaritzea etengo da beti ere, bi kasuetan, ordaintzeko borondatezko epealdiaren amaieran ordaintzeke dagoen zorra 6.000,00 € koa edo gutxiagokoa baldin bada.

3. Aurreko puntuan adierazitakoak baino zenbateko handiagoetarako, interesdunak errekurtsua aurkezteko epe barruan, inpugnatutako egintzaren egikaritzea etetea eska dezake. Baina horretarako errekurtsogileak aukeratutako ondoko bermeekin batera aurkeztu beharko du:

- Dirua edo balio publikoak gordailutzea.
- Kreditu-erakundeek edo elkarren arteko berme-sozietateek edo kausio-asegurua egiaztagiri bidez emandako izaera solidarioko abala edo fidantza.

4. Errekurtsua ebazteko organo eskudunak prozedura berme prestaziorik gabe etetea erabakiko du, derrigorrezkoa denean, alegia ordenantza honetan automatikoki eteteko ezarritako muga gainditzen duelako, ondoko kasuetan:

- Akats aritmetikoa, materiala edo egitatezkoa izan litekeela ikusten denean.
- Ebazteko organo eskudunaren iritziz, errekurtsogileak alegatu ondoren, prestazio ezinezkoa zaiola justifikatzen duenean.

5. Etenaldi hori emateak, irauten duen denbora guztiagatikoz luzamendu interesak ordaindu beharra erakarriko du, eta birjarpen errekurtsua denean besterik ez du izango eraginik.

6. Berraztertze errekurtsua aldizkakoak ez diren zorren kasuan, egintza beren-beregi jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita hilabete epean aurkeztu beharko da. Aldizkako epemuga duten zorrak badira eta jakinarazpen kolektiboa bada, errekurtsua borondatez ordaintzeko epe barruan aurkeztu ahal izango da edota berau amaitu eta biharamunetik zenbatzen hasita hilabete epean.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

V.- IKUSKATZEKO PROZEDURA

22. artikulua.- Zerga ikuskatzailtza

Zerga ikuskatzailtza garatuko da 2/2005 Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zerga-zehapenen Arautegia eta gainerako xedapen osagarriak onesten dituen Foru Aldundiaren 99/2005ean ezarritakoaren arabera.

VI.- KUDEAKETA ARAUBIDEA

23. artikulua.- Kudeaketa araubidea

Tributu kudeaketako jarduera eta prozedurak Bizkaiko Lurraldeko Historikoaren 2/2005 Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta udal ordenantzetan beren-beregi zehaztuta ez dagoenetan, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zerga-kudeaketaren Arautegia eta gainerako xedapen osagarriak onesten dituen Foru Aldundiaren 112/2009 FDan ezarritakoaren arabera burutuko dira.

VII.- ZEHATZEKO ARAUBIDEA

24. artikulua.- Zehatzeko ahalmena

Zehatzeko prozedura garatuko da, Bizkaiko Lurraldeko Historikoaren 2/2005 Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zerga-zehapenen Arautegia eta gainerako xedapen osagarriak onesten dituen Foru Aldundiaren 100/2005ean ezarritakoaren arabera.

VIII.- XEDAPEN GEHIGARRIA

Jarraian agertzen direnak eroldaren arabeko tributu eta prezio publiko desberdinen jendaurrean egoteko eta borondatez ordaintzeko epeak dira. Borondatez ordaintzeko epea igaro eta zorra osorik ordaindu ez bada, betearazpen bidezko zergabiltetari ekingo zaio automatikoki ordaindu gabe dagoen horrengatik:

	Jendaurrean	Borondatezko ordainketa	Helbideratuta dutenei bankutik pasatu
Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga	Martxoaren 15etik 31ra	Apirilaren 1etik maiatzaren 31ra	2010/30/04an
Ura, zaborra eta estolderia	Borondatez ordaintzeko epe aurreko 15 egunak	2009ko 4. hiruhilekoa: 2010/02/01etik 2010/03/15era 2010eko 1. hiruhilekoa: 2010/05/03tik 2010/06/15era	4. hiruhilekoa: 2010/03/15 2010eko 1. hiruhilekoa: 2010/06/15



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

		2010eko 2. hiruhilekoa: 2010/08/02tik 2010/09/15era	2010eko 2. hiruhilekoa: 2010/09/15
		2010eko 3. hiruhilekoa: 2010/11/02tik 2010/12/15era	2010eko 3. hiruhilekoa: 2010/12/15
		2010eko 4. hiruhilekoa: 2011/02/01etik 2011/03/15era	2010eko 4. hiruhilekoa: 2011/03/15
Pasabidea, aparkatzeko erreserbak, terrazak, vending-kutxazain automatikoak, baserriko produktuen asteroko azoka-txikia	Uztailaren 15etik 31ra	Abuztuaren 1etik irailaren 30era	2010/09/30
Boroako kamioien aparkalekua	Urtarrilaren 15etik 31ra	Hilero	Hilaren 25ean
Asteko azoka-txikia Bestelako produktuak	Borondatez ordaintzeko epe aurreko hamabost egunak	2010eko 1. hiruhilekoa: 2010/02/01etik 2010/03/31ra 2010eko 2. hiruhilekoa: 2010/05/01etik 2010/06/30era 2010eko 3. hiruhilekoa: 2010/08/01etik 2010/09/30era 2010eko 4. hiruhilekoa: 2010/11/01etik 2010/12/31ra	2010eko 1. hiruhilekoa: 2010/03/01 2010eko 2. hiruhilekoa: 2010/06/01 2010eko 3. hiruhilekoa: 2010/09/01 2010eko 4. hiruhilekoa: 2010/12/01

IX.- AZKEN XEDAPENA

Bakarra.- Indarrean sartzea

Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunean sartuko da indarrean, eta ez du atzeraeragineko ondoriorik izango. Hala ere, zergei buruzko arau-hauste eta zehapenen eta gainordainen araubideak atzeraeragineko ondorioak izango ditu irmoak ez diren egintzei dagokienean, aplikazioa mesedegarriagoa denean. (BAO. 239.ZK.2006, abenduak 18. Astelehena)

Ordenantza hau 2006ko irailaren 27an egin zen Ohiko Osoko Bilkuran onartu zen hasiera batean eta behin-betiko azaroaren 21ean. Ondoren, 2007ko urriaren 25ean egin zen Ohiko Osoko Bilkuran hasiera batean eta behin betiko 2007ko abenduaren 14an, aldatu zen lehenengoz. Eta bigarrenez, 2008ko urriaren 17an egin zen Ezohiko Osoko Bilkuran onartu zen hasiera batean eta behin betiko 2008ko abenduaren 04an.

Aldaketa hau 2009ko urriaren 16an egin zen Ezohiko Osoko Bilkuran onartu zen hasiera batean eta behin betiko 2009ko abenduaren 04an. 2009ko urtarrilaren 01ean jarriko



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

da indarrean, eta horrela jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki artean. (BAO 240.zk. 2009, abenduak 16. Asteazkena).